



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

19/01/17

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek Alonsotegiko trafiko araei konponbidea emoteko azterlana osatzeko eskatu deusie Aldundiari**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak Arauz Besteko Proposamena onetsi dau gaur goizean, “BI-3651 errepidean trafikoa baretzeko azterlan bat egitea” eskatzeko Aldundiari, “Alonsotegiko Udalagaz lankidetzan, eta bertan proponiduten diran jarduketak gauzatzeko”. Ekimena, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako ekimenetik sortu da, ondoren Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea jaso dauen arren, eta EH Bildu eta Talde Popularra be alde agertu dira. Hori dala eta, bertaratu diran 15 batzordekideek aho batez onetsi dabe, Talde Mistoko ordezkaria ez dalako bertan egon.

Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak bere ekimenaren errazoiak aitatzean, ibilgailu askok, BI-3651 errepidetik Alonsotegi zeharkatzean daroen abiadura handiak eragiten dauen arriskua eta zoladuraren egoera txarrak eragindako zaratea aitatu ditu. Isabel Cadaval sozialistak eta Aitor Ibarra jeltzaleak adierazo dabenez, negoziazioak martxan dagoz udalerriko Udalaren eta Foru Aldundiaren artean, arazoa aztertzeke. Hortik sortu da jatorrizko testuaren aurrean aurkeztu dan zuzenketa-eskea. Jesús Isasi bozeroale popularrak proposamenagaz ados dagola esan dau, Zigor Isuskiza EH Bilduko ordezkariak bezela. Azken horrek aitatu dauenez, komenigarria izango litzateke proponidutako azterlana baliatzea Arbuio auzoagaz oinezko lotune segurua eregiteke.

### Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Bolintxun izango dauen eragina

Preminazko prozeduraz tramitatu dan eta Eh Bildu eta Podemos taldeek batera aurkeztu dabenek Arauz Besteko beste Proposamen batek, hori be errepideke azpiegitura bati buruzkoa, ez ditu onesteko beharrezkoak ziran botoak jaso. Oraingo honetan landu dan puntua Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen 1B fasea izan da. Lan horreek denpora gitxi barru hasiko dira, eta eragina eukiko dabe Bilboko udalerrian bioaniztasun handiena daukan gunean, Bolintxuko Haranean, hain zuzen be.

Nuria Atienzak (Podemos Bizkaia) eta Onintze Oleagak (EH Bildu) esan dabenez, “Supersur” izenekoaren kontra dagoz, errepide horren erabileraren ganean egozan aurreikuspenak ez diralako bete eta, euren eretxiz proiektuak ez daukalako justifikaziorik, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloei begiratuta. Alderantziz, Euskal Sozialistak (Isabel Cadaval) eta Euzko Abertzaleak (Irene Edesa) taldeetako bozeroaleen eretxiz, Bizkaiko mobikortasun arazoak konpontzeke proiektu integrala da, Bizkaiko Batzar Nagusietan askotan eztabaidatu dana, eta Bolintxu ingurunearen ganeko ingurumen eragineke adierazpena zorrotasun osoz errespetauko dala azpimarratu dabe. Oposiziotik, Jesús Isasi Popularra gobernu taldearen tesien alde agertu da oraingo honetan, esanez “tarte hori bukatzen ez bada, Hegoaldeko Saihesbidea ez dala errentagarria izango”. Bozketan, proposamena ez da onartu, kontrako 10 boto eta aldeke 5 izan ditualako.

### Euskalduna Zubiaren arazoak eta konponbide teknikoak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordearen gaur goizeko saioa Foru Aldundiko teknikari kualifikau biren agerraldiagaz osatu da, Carlos Estefanía Errepide Sarearen Kudeaketarako Zuzendaria eta Felipe Cobo Kontserbazino Zerbitzu Burua. Aduitu biak Jesús Isasi Talde Popularreko bozeroalearen eskariz etorri dira Batzarretara, 2018ko bagilaren 28an izan ziran eta bide-zubia aldi baterako ixtera behartu eben gertakariak dirala eta.

Estefanía eta Cobok zubiaren ganeko ondo dokumentautako txostena aurkeztu dabe. Txosten horretan, 1992tik gaur egunera bitarteko kronologia osoa jaso da, zubiaren sorkuntza, eregitea, konponketak eta gertakizunak. 1995ean eregitako bide azpiegitura da, eta ondo bereizitutako hiru parte ditu: zubia bera, zubia eusten dauen hormigoizko estribua, eta gehitu jakon sarbiderako arrapalea.

Errazoi tekniko konplexuak dirala eta, eregitearen eredu teorikoak ez eutsela benetako baldintzei erantzun eta 1999tik aurrera osatu egin behar izan zala argitu ostean, Bizkaiko Foru Aldundiko teknikari biek argitu dabe bagilaren 28ko gertakaria zubiaren estrukturako elementu baten apurtzeak eragin ebala –hori dala eta Foru erakundea izan da konponketeaz arduratu dana–, baina personeren eta ibilgailuen segurtasuna edo bide-zubiaren integritadea bera, ez dirala inoiz arriskuan egon nabarmendu dabe.

Batzarretako taldeetatik, emondako azalpen tekniko zorrotzak eskertu dira, eta bozeroale guztiek zubiaren estrukturan izandako eragina aitatu dabe. Arazo horrek Foru Aldundia behartzen dau konponketa eta egokitzapen lanak egitera, 2010ean zubia Udalari pasetako hitzarmena sinatu zalako, eta azken hori dalako zubiaren mantentze-lanen gastuak bere gain hartzen dituana.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
17/01/19

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a completar el estudio de soluciones a los problemas del tráfico en Alonsotegi**

La Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana una Proposición No de Norma por la que se insta a la Diputación Foral a “completar el estudio de calzado de tráfico en la BI-3651 en colaboración con el ayuntamiento de Alonsotegi y ejecutar las actuaciones propuestas en el mismo”. La iniciativa es el resultado de una iniciativa del grupo juntero Podemos Bizkaia, enmendada conjuntamente por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y apoyada por EH Bildu y Grupo Popular, por lo que ha obtenido la unanimidad de los 15 junteros presentes, en ausencia del representante del Grupo Mixto.

La portavoz de Podemos Bizkaia Nuria Atienza ha expuesto la motivación de su iniciativa en el peligro por la velocidad a la que muchos vehículos atraviesan Alonsotegi por la carretera BI-3651, así como el ruido debido al mal estado del firme. La representante socialista Isabel Cadaval y el nacionalista Aitor Ibarra han aducido que hay negociaciones en marcha entre el Ayuntamiento de la localidad y la Diputación Foral de cara a estudiar el problema, y de ahí la enmienda presentada al texto original. El portavoz Popular Jesús Isasi ha expresado su acuerdo con la propuesta, al igual que el representante de EH Bildu Zigor Isuskiza, que ha comentado la conveniencia de aprovechar el estudio propuesto para abordar una conexión peatonal segura con el barrio de Arbuio.

### Variante Sur Metropolitana y afección en Bolintxu

Una segunda Proposición No de Norma, tramitada por el procedimiento de urgencia y presentada conjuntamente por Eh Bildu y Podemos y referida igualmente a una infraestructura viaria, no ha obtenido en cambio apoyo suficiente para su aprobación. El objeto de atención era en este caso la fase 1B de la Variante Sur Metropolitana, cuyas obras están a punto de iniciarse y afectarán a la zona de mayor biodiversidad del municipio de Bilbao, como es el Valle del Bolintxu.

Nuria Atienza (Podemos Bizkaia) y Onintze Oleaga (EH Bildu) han argumentado su oposición a la llamada “Supersur” por el incumplimiento de sus previsiones de uso y por lo que han considerado falta de justificación del proyecto en términos sociales, económicos y medioambientales. Por el contrario, las portavoces de Socialistas Vascos (Isabel Cadaval) y Nacionalistas Vascos (Irene Edesa) han estimado que se trata de un proyecto integral para solucionar problemas de movilidad en Bizkaia, debatido en numerosas ocasiones en el seno de las Juntas Generales de Bizkaia, y que la declaración de impacto ambiental sobre la zona de Bolintxu se respetará escrupulosamente. Desde las filas de la oposición, el Popular Jesús Isasi ha apoyado en este caso las tesis del equipo de gobierno, señalando que “sin la finalización de este tramo, la Variante Sur deja de ser rentable”. En la votación, la proposición ha sido rechazada por 10 votos en contra y 5 a favor.

### Problemas y solución técnica al Puente Euskalduna



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

La sesión de esta mañana de la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con la comparecencia de dos cualificados técnicos de la Diputación Foral, el subdirector general de Gestión de la Red Viaria Carlos Estefanía, y el jefe de servicio de Conservación, Felipe Cobo. Ambos han acudido a solicitud del Portavoz del Grupo Popular, Jesús Isasi, en relación los hechos acaecidos el 28 de junio en el Puente Euskalduna de Bilbao, que obligaron al cierre temporal del viaducto.

Estefanía y Cobo han aportado un documentado informe en torno al puente que ha incluido una cronología completa sobre la génesis, construcción, reparaciones e incidentes registrados desde 1992 hasta el momento presente. Se trata una infraestructura viaria construida en 1995, con tres partes claramente diferenciadas: el puente en sí mismo, el estribo de hormigón en el que se apoya y la rampa de acceso añadida.

Además de aclarar que, por razones técnicas complejas, el modelo teórico de la construcción no respondió a las condiciones reales y hubo de ser complementado a partir de 1999, los dos técnicos de la Diputación Foral de Bizkaia han aclarado que el incidente del 28 de junio obedeció a la rotura de un elemento de la estructura del puente –y de ahí que haya sido el ente foral el encargado de su reparación-, pero que la seguridad de personas y vehículos, o la propia integridad del viaducto, no se han visto en ningún momento comprometidos.

Desde los grupos junteros se han agradecido las profusas explicaciones técnicas ofrecidas, y la mayoría de los portavoces han incidido en la afección a la estructura del puente, que obliga al ente foral a hacerse cargo de las obras de reparación y reacondicionamiento, dado que en 2010 se firmó un convenio de traspaso al Ayuntamiento y es éste quien se hace cargo de los gastos de mantenimiento del puente.